

# Noaia!!!



Kukubiltxokoak,  
ostiral honetan frontoian

## Zumarte Musika Eskolak 25. urteurrena ospatuko du larunbatean



# I. URKUZOLA AROZTEGIA

Konfiantzazko arotza nahi baduzu,  
etor zaitez gurera

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE  
(Errekatxo jatetxearen ondoan)  
Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

twitter.com/noaua

facebook.com/noaua


YouTube youtube.com/noauatb

NoauaTB noaua.com

## etxeko txikientzako

behar duzun guztia

### ALKARTASUNAN



Lekualdatzeko,  
oheak..



Arkakusoen  
aurka



Parasitoen  
aurka



Xanpuak



Janaria  
goxokiak



Jostailuak

ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASEPENA HERRA  
BIZIRIK

alkartasuna@usurbil.com | Ugarte industrialdea 12 @ 943 361 114

## Albistea iruditan !

# Hiri baratzeen inguruko ikastaroak harrera ona izan zuen

**2**5 lagunek parte hartu zuten joan den maiatzaren 29an, Usurbiltzen Taldeak antolatuta burutu zen hiri baratza ekologikoei buruzko ikastaroan. Helburua, nork bere etxeko balkoi edo terrazan baratza jartzeko teknikak ikastea zen, birziklatutako materiala erabilita. Ureztatze sistema edota etxean bertan konpostajea egiteko teknikak ere irakatsi zituen Gasteizko Bioalai kontsumo-kooperatibako kide Pedro Ferrerok.

Ikastaroko plaza denak bete ziren eta batzuk kanpoan geratu ziren. Horregatik, ikastaro berri bat antolatzekotan dira. Aurrerago zehaztuko dute noiz burutuko den ikastaroa.



ARRILLAGA TXIKI BASERRI ONDAN EGIN ZEN IKASTAROA.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Borda Berri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

MORATORIOA ESKATZEKO MANIFESTAZIOA... **5. OR.**

ZUMARTEREN 25. URTEURRENA... **8. OR.**

KIROL JARDUERA UGARI ESKUALDEAN... **10. OR.**

OSTIRALEAN FRONTOIAN, KUKUBEL... **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak  
EGUZKITZA, 4 · 943 370 344

ZUBIAURRENEA USURBIL  
ileapaindegi  
mistoa  
943361951

**Ford**  
**Usurbil**  
Autoak, S.C.L.  
Zerbitzu Ofiziala  
Zumartegi Poligonoa,  
Aitezarra kalea, 1.  
20170 USURBIL  
Faxa: 943 36 62 92  
943 36 10 79



UNAI AGIRRE

## Gure haurren etorkizuna, gure herriak bizirik!

Astegunetako arratsaldetan, Zubietako plazatik pasatzean, edonor konturatu daiteke Zubietako plazak, herri txikia izanda ere, bizitza daukala. Haur txikiak lehen pausoak eman nahian, gurasoen bizkarrara txikitzen dabilta. Kulunpioak, txirristak, umez beteta. Baten bat iturrian bustitzen behar ez den neurri-raino, besteren bat bizikletan, malda bera, eroriko ez denaren ustearikin... Herri bati bizitza zerbaitek ematen badio, gure etxeetako txikiak herrian bertan eskolara joatea da. Horregatik ezinbestekoa dugu herri txikietan eskolak mantentzea, eskola txikiak alegia. Eskola txikiak sendotuta ikusten genituenean eta lehen hezkuntza osoa bertan egitea aurreikusten zenean, hezkuntza sailak Zubietan, Itzian eta Larraulgo eskolatan murrizpenak egitea erabaki du. Herriak eta ikasle kopuruak babesa ematen badio gure asmoari, erabaki politikoak errotik moztu nahi du eredu honekin. Eskola txikiak bizirik mantentzeko asmoz, Gipuzkoan dauden 26 eskola txikiak, txandakatuta, urtean behin eskola txi-

kien eguna antolatu ohi dute. Aurten, igande honetan bertan, Tolosaldera jauzi egingo gara, Altzora. Egunean zehar haur jolasak, puzgarriak, erakusketak, eskulanak eta abar izango dira. Arratsalde partean, Pirritx eta Porrotx, Lain taldea, bertsolariak... Baina ederrena ez da izango han aurkituko duguna, bertara eramango duguna baizik: Gure elkartasuna eta aldarrikapena, eskola txikiak bizirik, herri txiki eta auzoak bizirik jarrai dezaten.

Hala eta guztiz ere, Zubietan eta Usurbilen beste mehatxua badugu ere. Ez dezagun ahaztu erraustegiaren proiektua, inoiz baino aurreratuagoa, baina gelditzeko aukera inoiz baino gertuago duguna ere. Hurrengo igandean, ekainaren 20ko eguerdian, tartertoa gorde beharko dugu gure agendetan, Errausketarik ez! leloa bera hartuta, baina gaindituta era berean. Moratoria eskatuko dugu eta Gipuzkoa zero zabor lurraldea izan dadin. Gure osasunaren alde, eta beste behin ere gure haurrek etorkizuna izan dezaten.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

### Ika-mika!

#### Heriotzaren danbor hotsak

Danborrada. Jai Batzordea. Santixabelak. Festa. Bizitza. Horixe da burura datorkidana Itzianekin pentsatzen dudanean. Bizitza. Guretzako Itzian "Danborradako Itzian" izan baita beti.

Gaur, lanera etorri eta lankideek begiratu ilunarekin Itzian "hil" egin dela esan didate. "Danborradako Itzian!" galdetu diet.

Eguerdi bueltan, udalera inoiz izan ditugun herritar gazteenak etorri dira eskaera batekin. DBH1eko ikasleak dira. 12 urte inguru izango dituzte. Santixabel Jaietan Itzianren izenean sentimenduz "zerbait" egin nahi dute. Bere semearen lagunak dira.

Eta pentsatu dut: bai zaila dela festa-giroa heriotzarekin uztartzea!

Pozak tristura. Argiak iluna. Egunak gaua. Bizitzak heriotza.

Maite Iribar

## Euskara ikasten aritu direnek diru-laguntzak eska ditzakete

**Dirulaguntza hauek 2009ko irailetik 2010eko abuztuak 31 arte euskara ikastaroren bat egin duten herritarrei zuzendutako deialdia da. Eskabideak udal erregistroan aurkeztu behar dira, honako epearen barruan; ekainaren 14tik 28ra.**

Euskara ikasten aritu direnei, matrikula kostuaren %80a itzuliko zaie. Bi baldintza bete behar dira: ikasturte osoan zehar klaseen %80ko asistentzia izan eta Usurbilen erroldatua egon beharko dute.

Euskara ikasten ari diren langabetu eta 12 urtetik beherako seme-alabak dituzten gurasoek matrikulazioan ordainduta-

koaren %100a jasoko dute. Baina, bate-tik, aipatu gurasoek familia-liburuaren fotokopia aurkeztu beharko dute. Modu horretan, ikastaroa hasitako eguna baino lehenago, haurrak 12 urte edo gutxiago dituela egiaztatuta beharko dute. Langabetuen kasuan, ikastaroa burutu den epealdiko Gizarte Segurantzako "Lan historiala" izeneko ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ikastaroak irauten duen denboraren erdia baino gehiagoan lanik gabe egon denak jasoko du matrikulazio kostuaren %100a.

UEUko ikasle direnek ere diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke. Matrikulazioaren %60a jasoko dute, klaseen %80an parte hartu badute.



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



## Ekainaren 20an manifestazioa Donostian, erraustegi egitasmoaren moratoria eskatzeko

**H**ilaren 20ko manifestazioko deitzaileek Donostiako Onkologiko ataria aukeratu zuten joan den ekainaren 4an, mobilizazioa iragartzeko. Zergatia ekitaldian bertan agertu zuten. “Onkologikoaren aurrean bildu gara gure osasunaren alde gaudelako. Eta horregatik moratoria bat eskatzen dugu, gure haurrek etorkizuna izan dezaten, gure osasuna kalte ez dezaten”, zioen Usurbilgo Itunaren ize-nean Xabier Mikel Errekondok eta Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinakundearenean Maria Luisa Sanchezek irakurri zuten adierazpenan.

Manifestaziora joateko arrazoi ugari eman zituzten. Tartean, hondakinak erraustearen aurka agertzea edota hondakinaren arazoari gipuzkoarren legokeen konponbide eredu integrala bultzatzeko eskatzea. Aipatu ere hiru ardatz nagusi izango lituzke, deitzaileen arabera: atez ateko bilketa, konpostajea eta birziklapena.

Guztia, Onkologiko aurrean bildutakoek gogorazten zuten, “Gipuzkoa zero zabor lurraldea izan dadin”. Zero zabor politikak bultzatzeko konpromisoa berretsi zuten beste behin, hartara, gaineratzen zuten moduan, “erraustegia gosez hiltzeko bidean jarriko dugu”.

### Errausketa debekatzeko eskaera

Jokoan, etorkizuna eta datozen belaunaldiei utziko diegun ondarea daudela diote. Horregatik, sei urteko moratoria eskatzen dute, sei urtez erraustegi egitasmoa gelditzea. “Aukera txiki bat eskatzen dugu. Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen erakusten ari zaizkigu ez dagoela hondakinak errausteko inolako beharrik”, adierazi zuten.

### Haurrak, “motorrarekin”

Manifestaldi egunean, haurrak karteleko argazkian ageri diren motorrekin agertzera dei egiten dute antolatzaileek. Manifestaldi buruan joango dira haietako asko, antolatzaileen hitzetan, “aurrera egin nahi dutela adierazteko, etorkizuna direla erakusteko, osasuntsu bizi nahi dutela aldarrikatzeko”.



HAURRAK “MOTORREKIN” JOATEKO DEIALDIA EGIN DUTE.

## Italiako hainbat esperientzia ezagutzen

**A**tez ateko bilketan aitzindari izan da Gipuzkoako ordezkari bat, Usurbilgoa tartean, ekainaren 5etik 9ra San Marko Mankomunitateak antolatutako bidaiari. Konpostaje-plantak eta bilketa esperientziak batera, bertan hondakinaren tasa ordaintzeko dituzten sistemak ezagutu dituzte.

40 lagun inguruz osatutako Gipuzkoako ordezkari egunotan Italia iparraldean izan da, Milano edota Torino inguruetan hain zuzen. Italiarrek asmatu zuten atez ateko bilketa esperientzien nondik norakoak hurbiletik ikustera joan dira, San Marko Mankomunitateak antolatutako bidaiari. Italiarrak aipatu sistema gauzatzen lehenak izan ziren. Konpostaje-plantetan burutzen duten lana eta dakartzen emaitzak eta atez ateko bilketa esperientziak ezagutzen izan dira. Baita, hondakinaren tasa ordaintzeko aplikatzen dituzten sistemak ere, tasa zuzena delakoa; sortzen den hondakin kopuruaren arabera tasa ordaintzera bideratuak dauden kudeaketa ereduak hain zuzen.

### Ordezkaritza zabala

San Marko Mankomunitateko ordezkari egon da Italia iparraldera egindako bidaiari, Ricardo Ortega eta Imanol



ITALIAN IZAN DIRA EGUNOTAN SAN MARKOSEK ANTOLATUTAKO BIDAIA.

Azpiroz, Mankomunitateko lehendakari eta lehendakari ordeak buru zirela. Tartean, atez ateko bilketa abian jarri duten Usurbil, Hernani eta Oiartzungo alkateak; baita Urnietako alkate Mikel Izagirre ere.

Usurbildik ordezkari zabala joan da. Imanol Azpiroz ingurumen zinegotzia, Aralarreko udal ordezkari Lontxo Zubiria eta PSE-EE-ko zinegotzi Amaya Goyaran. Baita atez ateko bilketari lotutako Jarraipen Batzordeko, Atez Ate Dudipe bilguneke eta Usurbil Bizirik plataformako hiru kide ere. Atez ateko informazio bulegoko informatzailea ere bertan izan da.

Gipuzkoako beste zenbait zonaldeko ordezkariak ere bertan dira; hala nola, ezker abertzalea, Aralar, Alternatiba, Ezker Batua edota PSE-EE-ko ordezkariak. Datorren astekarian bidaiaren xehetasun gehiago.

KALEZAR

MADDI GALBETE

## Desagerpenaz



**B**izitzaren desagerpenaz hitz egin nezake, edo historiaren desagerpenaz, edo denboraren desagerpenaz. Baina gaurkoan Troiako auzo ttiki honetan zentratuko naiz; auzo honen desagerpenean, hain zuzen ere.

Duela hilabete inguru hasi ziren etxe ondoan obrak. Hasi zen lurra arrotzen eta hautsez bete ziren bazterrak. Bi asteren buruan baserri zaharrik gabe geratu ginen; XVII. mendetik zutik zirauten lau horma zaharrak bota eta lur zabal eta laua gelditu zen etxearen ondoan. Gelditu da, ordulariko orratzak gelditzen diren bezala, bestelako misteriorik gabe.

Harriduraz begiratzen diot lur zabalari, eta oraindik ere etxetik ateratzen naizen bakoitzean kosta egiten zait ondora begiratu eta hutsunea ikustea.

Zenbat momentu pasako ote genituen baserri hartako sukaldean...!! beti zegoelako goxo goxo; beti zegoelako denentzako lekurik.

Uholdeak pasa ostean ere sartzen ginen noizean behin, bizilagunei oiloen arrautzen bat lapurtzera. Eta betiko



magia bera mantentzen zuten paretok; uholdeen gainetik, denbora pasata ere.

Orain ez dago ezer. Lur asko eta leku zabal bat, besterik ez. Auzo honek jada ez dauka lehen zuen xarma eta Troiarik gabe "Troia auzoak" ere zentzu handirik ez du.

Baina ezagutu dugunok badakigu desagertu... ez dela desagertuko; gauzak ez direlako horrela, besterik gabe desagertzen. Gure baitan arrasto handi bat uzten duten gauzek bizirik jarraitzen dutelako beti. Ezta?

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

## Parkeko egoera



**K**osta zaigu baina badirudi hasi direla Keguraldi eguzkitsuak, grisetik grisera ibili gara eta orain arte. Eta uda giroarekin batera festak ere hasi dira. Sagardo Egunarekin ematen diogu hasiera udan bata bestearen atzetik etorriko diren herri eta auzoetako jaiak.

Baina ez naiz festez hitz egitera etorri gaurkoan.

Eguraldi onarekin batera, gure auzora jende gehiago hurbiltzen da, batez ere parke ingurura. Lehen ere aipatu izan dut parkea ez dagoela egoerarik onenean. Pena da honelako txokoa izan eta zainduta ez egotea. Denborarekin gauzak zahartzen eta puskatzen joaten dira baina konpondu ere egin behar dira. Honez gain, lehen ere nahiko zikin egoten zen eta orain basura ontzirik ez dagoenez, zikinago dago.

Badakit bertaratzen den jendeak basura etxera eraman besterik ez lukeela, han botata dena utzi beharrean baina hau egiten ez denez, agian egokia litzateke herrian bertan dauden bezala, zakarrontzi pare bat behintzat jartzea. Parkea ez dadila zikin egon guk garbi egoteko baliabiderik jartzen ez dugulako behintzat!

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

## Gorri, Berde edo Urdin

**P**asa den igandean, ekainak 6, Udaregi ikastolak urtero duela urte mordotik ospatzen duen Ikastolaren Eguna izan zen. Seguru nago ez dela beharrezkoa egun honi buruz ezer esplikatzeko hastera. Zenbatek jolastu ote dugu gorri, berde edo urdinen alde, Ikastolaren Egunean ikasleentzat antolatu izan diren jokoetan. Joko bakoitzean guttia ematen genuen gure taldeak garaipena lor zezan!

Baziren joko batzuk besteak baino gustokoagoak genituenak, benetan barregarriak beste batzuk. Ederki pasatzen genuen egun honetan. Nahiz eta igandea izan, gogo biziz joaten ginen ikastolara.

Hala ere, nik emozio handienarekin gogoratzen dudana ondoren egiten zen zozketa da. Urduritasun handiz bizitzen nuen momentu hura. Kolorearen arabera, irabazi edo galdu bagenuen bat, bi edo hiru zenbaki saritu posible izaten ziren. Urte batean tokatu zitzaidan zerbait... Kantinplora bat! Eta zuei? Gogoratzen al duzue zerbait tokatu zitzaizuen inoiz?



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

## Aginagatarrak indartsu



**B**etidanik ezagutu ditugu kirol lehiaketak usurbildarren eta aginagatarren artean. Istiluak ere ezagutu izan ditugu horrelako lehiaketetan; gogoan dugu bat, aspaldi samarrekoa, sokatiran, bi taldeen arteko disputa pisua zela medio. Baina garai haiek urrun geratu dira eta herriak piztu digu berriz ere lehiarako gogoia.

Azken bi urteetako estropadak izan dira aipatzen ari naizen lehia horren adibide. Baina aurten udaberrian, San Praixkuetako estropadak etorri baino hilabete batzuk lehenago, lehia eder bat izana dugu: gizon proba.

Aginagako gizon proba taldeko kideak, Oskar Santamaria, Josu Ostolaza, Igor Pagola, Iban Arruti, Imanol Esnaola, Mikel Errasti eta Abad Maioz dira. Lehia egunean eta eguraldi txarra medio, 10 minutuko saioa egin behar zuen talde bakoitzak. Aginagatarrek 14 plaza egin zuten eta usurbildarrek zinta bat gutxiago.

Usurbildar askok berriro ere esango du aginagatarrei adarra jotzeko dirua eta indarra Aginagan daudela. Aupa gazteak!



KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

## Gure antzeko



**Z**ergatik ez honela deitu; modu batera edo Zbestera, azkenean, bat eta bakoitza, ez al gara biktima?

Bat, erradikala, peperoa, sozialista, jeltzalea, batasunia edo dena delakoa babesten duelako... kontuz!

Bestea arotza, supermerkatuan produktuak bere lekuan ezartzen dituen, abokatua, erizaina, tabernaria, kirolaria, denda txiki bateko jabe, arrantzalea, azafata edota pilotoa delako... kontuz! Akaso, burgesito zeken edo behartsu gizagaixo izan gabe.

Dakielako euskaraz, abertzalea; edo ez dakielako, belarri motxa; ta jakin eta egiten ez duena, odolki galanta... kontuz!

Gabardina daraman hori, ez da fidatzekoa. Ikusten al duzu, eguzki izpi bakarra atera da eta dagoeneko izter guztiak bixtan daramatza! Hori da tatuai hori! Euria goitik behera hastear eta eguzkitako betaurrekoekin...

Zenbat estereotiporen biktima! Ni biktima, zu biktima, hura biktima ta han, mendi puntakoa ere, biktima.

Gure antzeko biktimekin, biktimago bihurtzen ez garen... globo itxi batean hertsirik, hegaka, gero eta hurrunagotzen... gure mundua bakarrik balego bezala... ezin ditugu beste biktimak ikusi, tratatu eta ezinezkoa zaigu beste biktimekin sentsibilizatzea eta elkarriketatzea. Ez dugu bakerik, baketik abiatu gabe.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Kontuz kirolak

**Z**ubietan bizi garenok badakigu ZErrebotean aritzen direnean erne ibili behar dugula pilotarekin, partida begira gaudenean. Horregatik jartzen da sarea babesteko. Gogorra da, gainera, makina bat teila puskatu izan da pilotak jota. Zubietarrek badugu guzti honen berri. Baina Zubietakoaz kanpo jendea ibiltzen da inguruan.

Horretaz aparte, azken erreforma egin zenean frontoia- ren ondoan ume txikientzako parkea jarri zen. Arriskua handitu egin da, eta azken partidari zinta jarri behar izan da ohartarazteko.

Hala ere, ez da hau arriskua sortzen duen kirol bakarra. Lasarteko bidea berriro zenetik ugaritu egin da paseatzaille eta txirrindulari kopurua. Hauekin batera patinatzaileak. Eta azken hauen artean lerroan doazenak. Lau lagun lerroan patinatzen ikustea ez da dagoeneko hain xelebrea.

Paseatzaile, korrikalari, txirrindulari, patinatzaile... Larunbat goizean errepideak kiroldegia ematen zuen. Ez da txarra. Osasungarria ere bada, baina istripu arriskua handitu egin da. Guk geuk, autoan goazenok, ere motelago gidatzen hasi beharko dugu.



# Zumarte Musika Eskolaren egun handia

## Larunbat gauean, kiroldegian ospatuko du mende laurdena

**D**enbora nola pasatzen den. Aldez aurretik prestaketa lanetan gogor aritu ostean, 1985ean ireki zituen atea Zumarte musika eskolak. Orduetik, ikasle kopuruak gorantz egin du, eta Zumarteko eskaintza indartzen joan da. Zenbait ezinak diren hainbat emanaldi eta saioen ostean, eta ia mila ikasle trebatu dituztenean musika eskolak 25 urte bete ditu. Ekainaren 12an ospatuko dute jaialdi baten bidez.

**NOAUA!** Nondik abiatu zen egitasmoa, herri eskaeratik, behar bati erantzutetik?

**Iñaki Mujika.** Orduan bazen txistulari taldea, 20 lagun izatera iritsi ginen. Beste ekintza batzuk baziren, baina era partikularrean. Beste instrumentu batzuk sartu nahian, Taratxun txaranga sortu genuen lagun artean.

### ABESBATZAREN GARRANTZIA

“Une gogoangarrienak abesbatzarekin bizi izan ditugu. 60 bat lagun izatera iritsi izan gara”

Zenbait gazte musika ikasten aritu eta herritik kanpora joaten zirela ikusita, 1983an musika eskola sortzea proposatu genuen txistulari taldetik Udalean. Urte hartan lanean hasi eta 1985ean sortu zen Zumarte Musika Eskola.

**N. Lehen ikasturteak zer nolako harrera izan zuen?**

**I. M.** Beste musika eskola batzuegandik ikasitako gauzak egiten hasi ginen. Guretzat Trintxerpeko musika eskola erreferente bat izan zen, eta haien laguntzarekin hasi ginen. Txistua, tronpeta, pianoa, eskusoinua edota saxofoia bezalako instrumentu batzuekin eta hurbildu zen ikasle kopuru txiki batekin hasi ginen. Lagun artean, borondatez lan asko eginez, ordu asko sartuaz, egitasmoa martxan jarri arte.



ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO KIDEAK LARUNBATA NOIZ IRITSIKO ZAIN DIRA.

**N. Nola eboluzionatu dute eskolatik egin den eskaintza eta ikasleen lehentasunek?**

**Idoia Arruabarrena.** Jendearen eskaeraren arabera, musika instrumentu berriak sartu ditugu. Hasiera batean, ikasle piloia zegoen adibidez, txistuan, eskusoinuan eta pianoan. Orain ia alderantzikoa gertatzen da.

**N. Musika instrumentua ikasi eta heziketa eskaintzen duzue?**

**I. A.** Azken finean eskola bat da. Musika hezkuntzaz gain, taldean jotzeko diziplina, bakoitzak bere lana ondo egitea, eta emanaldi uenean behar bezala egotea eskatzen baitu.

**I. M.** Batzuek kirolaren bidez egiten zuten moduan, garai hartan musikari lotutako sentsibilitate hori hezi beharra ikusten genuen. Azkenean, musika hizkuntza bat da eta nazioartekoa. Beraz, esparru asko ukitzen direla uste dut.

**N. Musika joerak eta musikaz gozatzeko guneak aldatu dira. Zer modutan bizi izan dituzue aldaketok?**

**I. A.** Txaranga eta txistu taldeek kaleko aktibitateak eskatzen dituzte. Baina kontzertuak ere eskaintzen ditugu beste instrumentuekin areto itxietan. Denerako jokoa ematen du. Orain txaranga txiki bat martxan jartzen ari gara, Pasaiako ikasle batzuen laguntzarekin eta denetarik jorra daiteke.

**I. M.** Une gogoangarrienak abesbatzarekin bizi izan ditugu. Abesbatzan, 60 bat lagun izatera iritsi izan gara. Baita Islandian eta beste zenbait lekutan kantatzera ere, horrek dakarren elkarbizitza, diziplina eta ondo pasatzeko gogoarekin.

### 25 urte, datuetan

**Sorrera urtea:** 1984.

**Heziketa eskaintza:** musika mintzaira, kantu eta instrumentuen irakaskuntza.

**Helburua:** musika kultura suspertzea.

**Musika Eskolaren egoitzak:** hasieran, Potxoenea; gero Villa-Pilar (egungoa).

900 ikasle igaro dira musika eskolatik.

**Gaur egun:** 16 irakasle eta 235 ikasle daude.

**Kontzertuak herritik kanpo:** Euskal Herrian, San Cugat (Katalunia), Banyolas (Katalunia), Guadalajara, Alcalá de Henares, Marchamalo, Islandia...

**Ekitaldiak herrian:** Santa Zezili, eguberriak, Soinurbil, kontzertu pedagogikoak, musika eskolekin trukaketa-kontzertuak, Zumarteko ganbarako kontzertu txikiak, herriko beste ekitaldiak...



# “Sorpresak izango dira larunbateko kontzertuan”

NOAUA! Ekainaren 12an, ospakizun eguna. Luzatu gonbita herritarrei.

Idoia Arruabarrena. Mundu guztiari gonbita egin jaialdira etortzeko, mereziko du eta. Goizean, kalejira burutuko da, gaur egungo eta izandako ikasle eta irakasleekin. Gauean emanaldi nagusia. Talde desberdinak izango dira, dantzariak... Ez da izango kontzertu soil bat. Sorpresak izango dira tartean. Azken hilabeteotan entsegu piloak egiten ari dira ikasle ohiak. Eskerrak eman behar zaizkie egiten ari diren ahaleginagatik.

**IÑAKI MUJIKA**

“Zumarte bultzatzeak merezi du. Azkenean, herriarentzat lanean ari gara”

N. Etorkizuneko erronka nagusia egoitza berria izango da. Zertan da gaia?

Iñaki Mujika. Hona etorri ginenetik gauzak asko aldatu dira. Garai hartan, Udalak ahalegin handia egin zuen, etxe hau erosi eta musika eskola bezala moldatzeko. Ikasle gutxi haiekin hasi ginen, orain 235 ikaslerekin gabilta. Edozein eraikuntzak bezala eraikin honek jende mugimendua sufritu du 25 urteotan. Zenbait segurtasun neurri ez ditu betetzen, beste egoitza bat behar du.

I. A. Bileretan gaude udaletxean. Azkenetako Hezkuntza Mahaian aipatu zen Udarregi ikastolak eraikin handiagoa behar zuela. Aipatu zen Agerialden beste eraikin bat egingo zela eta Zumarte Kalezarreko beste batera joan zitekeela. Baina egoera faktore askoren mende dago. Ez dakigu zer gertatuko den.

N. Beste zer nolako helburuak finkatu dituzue aurrera begira?

I. M. Beste erronka batzuen artean, taldeak sendotzea legoke. Abesbatzak izan zuen bultzada hura errepikatu nahian gabilta. Bestalde, helduak musikaz gozatzera datozela ikusten ari gara. Eta hori da bultzatu nahi duguna.

I. A. Ikasle helduak geroz eta gehiago ditugu. Talde instrumental bat ere sortu da. Lanean topera dabilta. 25. urteurrenaren harira, apirilean disko bat grabatu genuen gaur egun ditugun taldeekin. Ekainaren 17an aurkeztuko dugu.



ZUMARTEK PASATAKO BELAUNALDI EZBERDINAK ARITUKO DIRA LARUNBATEAN.

Bestalde, geroz eta ikasle gehiago izanik, lekua behar dugu. Aurten matrikulazio epe hasieran, lau urteko ikasle taldea bete dugu. Geroz eta haur gehiago daude, eta ezin dugu nahi dugun gutzia eskaini.

N. 25 urteotako ibilbidearekin gus-tura zaudete?

I. A. Bitxia da baina orain gure ikasle izandakoen seme-alabak matrikulatzen ari dira. Ekartzen badituzte, beraiek ere

ondo pasa edo ikasi zutelako izango da.

I.M. 25 urteetan gorabehera asko izaten dira. Gazte hasten zara, familia eta lan kontuak direla, hainbeste gauza gertatzen dira. Bateriak kargatzeko ondo dago ospatzea. Balio du baita jendea konturatzeke ez dela Zumartekoa ez dela ekimen puntuala, 25 urte joan direla eta Zumarte bultzatzeak merezi duela. Azkenean herriarentzat lanean ari gara.

## Ekainaren 12ko egitaraua

11:30 Txistulari eta trikitilari-pan-derojoleen kalejira.

22:00 Kontzertu-jaialdi nagusia Oiarde kiroldegian.

SARRERA, txalapartariak: Iker Muguruza, Pello de la Cruz.

TRIKITILARIAK  
ETA PANDEROJOLEAK-KALEJIRA  
Trikitilariak: Mikel Alkorta, Etxeta eta Aitor Udabe. Pandero joleak: Agurtzane Alkorta eta Aloña Pulido.

ALBOKA-TRIKITIXA-PANDEROA  
ETA DANTZARIAK  
“Albiztur” (fandangoa-herrikoia).  
Partaideak: Oskar Angulo (alboka), Aitor Udabe (trikitixa) eta Aloña Pulido (panderoa).

TRIKITIXA-PANDEROA, DANTZARIAK  
“Arin-arina” (herrikoia).  
Trikitilariak: Etxeta eta Mikel Alkorta. Pandero joleak: Agurtzane Alkorta eta Aloña Pulido.

ZUMARTEKO ABESBATZAK  
“Usaiak” (M. Urdangarin) eta  
“Bohemian Rhapsody” (M. Brymer).  
TALDE INSTRUMENTALA-  
ZUMARTE ABESBATZA  
“Baga biga higa”. (Mikel Laboa).

TALDE INSTRUMENTALA-  
ABESBATZAK-TXISTU TALDEA  
“Behin betiko” (I. Urbieta / T. Agirregomezkorta), “Ikusi mendizaleak” (S. Gereño), “Obaloa” (T. San Miguel).

TALDE INSTRUMENTALA  
“Euskaria” (Mariano San Miguel) eta  
“Piratas del Caribe” (Klaus Badelt).

DENAK BATERA  
“Euskal musikaren gorespena” (herrikoia).

Dantza taldea: Sahatsa (Azpeitia-Azkoitia).

Abesbatzetako zuzendaria: Amaia Aldalur Goikoetxea.

Talde instrumentalaren zuzendaria: Miguel Angel Garcia Estagnan.



# Kirol jarduera eta partaidetza zabala eskualdeko kiroldegietan

Buruntzaldeko kiroldegietan antolatu diren ikastaroetan eskaintza anitza da, eta kirol jardueraren batean aritzeak dakartzan onurak are gehiago. Kirola egitea, ohiturarik ez duenarentzat, probatu egin behar da zer onura dakartzan ikusteko. Onura psikologiko zein fisikoa egitian nabaritzen baitira. Probatzea, onena.

**H**ogeita bat urte besterik ez izan arren, irakasle lanetan aritzen da Veronica Gonzalez Lasarte-Oria eta Ibarra kiroldegietan. Duela hiru urte, ikasketak bukatu bezain pronto, gorputza lantzeko eta tonifikatzeko ikastaroak eskaintzen hasi zen lasartearra.

Zer moduz moldatzen zara irakasle lanetan?

Veronica Gonzalez. Oso ongi moldatzen naiz ditudan ikasleekin. Duela hiru urte hasi nintzen pilates ikastaroekin eta pixkanaka, spinning, matenimenduko gimnasia, hirugarren adinekoentzako gimnasia eta orain eskaintzen hasi garen bodypam bideratzen ditut.

Nola egin zinen irakasle, hau da zer ikasi zenuen postu honetara heltzeko?

V. G. Aktibitate fisikoko gradua egin nuen eta horrekin bakarrik moldatzea hain erraza izango ez zela ikusi nuen. Kiroldegietan lana egin ahal izateko beste zerbait gehigarria zela konturatu eta, ikastaroak egitera animatu nintzen. Lehenik pilateseko titulua lortu nuen, hortik spinningeko ikastaroa egitera animatu nintzen... Kate bat izan da gutzia, pixkanaka-pixkanaka garatuz joan naiz. Kirol mota honek asko lotzen du eta ni ere harrapatu egin nau.

Kiroldegietan geroz eta indar handiagoa hartzen ari dira zuk eskaintzen dituzun ikastaro hauek, Zer onura dituela esango zenuke gorputzari dagokionez?

V. G. Aktibitatearen arabera, gorputzeko atal desberdinak lantzen ditugu. Pilatesi dagokionez, gorputzeko atal guztiak lantzen dira. Pilatesek duen onura ez da txura edo estetika hobetzeko. Norbera hobeto sentitzeko eta gaixotasunak sendatu eta saihesteko balio du.

Nola lantzen duzue gorputza, zein ariketa egiten duzue?

V. G. Pilatesen esaterako, gorputzeko

muskuluen tonifikazioa egiten dugu, hori bai tonifikazio lasaia da beti ere. Luzaketekin kontrol bat eramanez aritzen gara. Jende guztiarentzat egokia da, barnetik hasten gara lanean. Adi egon behar izaten da gorputz osoko lesioekin. Spinninga berriz aerobikoa eta gogorra izaten da. Gerritik beherako atalak lantzen dira gehienbat. Musika eta bizikleta izaten dira lanketarako tresna. Bodypamen berriz, pisuarekin egiten da lan. Nahiko gogorra da spinninga bezala.

Hirugarren adinekoen gimnasia berriz lasaia da, adinera egokituta dago. Mantenimenduko ikastaroa berriz guztien nahasketa bat dela esango nuke. Pilatesa ez da gogorra, baina gainontzekoak nahiko. Gogoia jartzea izaten da kontua. Lesioak dituen jendea etortzen da pilatesera, gazte, zahar, emakume, gizon, adin guztietakoak biltzen gara. Gainontzekoak, spinninga eta bodypama gogoragoak izanik, lesiorik gabe etortzea komenigarria izaten da errendimendu ona lortzeko.

## PILATES, SPINNING...

“Jendea kirol jarduera hauek probatzera animatuko nuke, jendea ezagutu eta norberarentzat onuragarria izaten da”

Nondik datozte kirol horiek, jakitun al zara zein jatorri duten?

V. G. Pilatesa Joseph Pilatesek sortu zuen kirola da. Spinninga berriz italiar batek asmatu zuen... Gaur egunean, asko ari da garatzen gure inguruko kiroldegietan.

Norentzat da egokia kirol bakoitza?

V. G. Jende guztiarentzat egokia da kirola egitea, baina monitoreak ongi ezagutu behar du ikaslearen gorputza. Lesioak izanez gero esan egin behar zaio, berari egokitutako ariketak egiteko...



KIROLA EGITEAK DITUEN ONURAK AZALDU DIZKIGU VERONICA GONZALEZ IRAKASLEAK.

Gustura sentitzen al zara lan honetan?

V. G. Bai, oso gustura sentitzen naiz, niretzat ere aberasgarria izaten da.

Lasartetik atera eta beste nonbait ikastaroak emateko asmorik eta aukerarik ba al duzu?

V. G. Bai, toki desberdinetatik jaso nituen eskaintzak baina Lasarten geratuko naiz oraingoz. Etxetik gertu geratzen zait eta jendea ere ezaguna dudanez, errazagoa da talde lana egitea, harremana sortzea errazago egiten zait. Ibarra ere aritzen naiz, Bizkortzen enpresa berberak egiten du lan bertan eta hara ere joaten naiz klaseak ematera.

Bukatzeko, jendea kirol jarduera hauek probatzera animatuko nuke, kirola egin, jendea ezagutu eta norberarentzat onuragarria izaten da. Egunerokotasunetik atera eta bakoitzak beretzako espazioa lortzeko balio du. Tentsioak askatzeko beharrezkoa da, bakoitzak bere metodoak ditu, batzuk bakarrik egiten dute kirola korrika egitera joanaz, esaterako, eta beste batzuek taldearen beharra izaten dute. Edonor etor liteke aipatu kirolak lantzerantz.



**Estatistika orokorrak: Buruntzaldea 2009-2010**

**Jarduerak, taldeak eta ikasle kopurua herriz herri**

HERRIA	EMPRESA	JARDUERAK	TALDEAK	BEGIRALEAK	IKASLEAK
Andoain	1	11	78	16	1.140
Lasarte-Oria	1	10	52	11	709
Urnieta	1	4	7	4	100
Usurbil	1	7	29	8	353

**Taldeak eta ikasle kopurua adinaren arabera**

HERRIA	EMPRESA	JARDUERAK	IKASLEAK	<16 URTE	HELDUAK
Andoain	1	11	1.140	243	897
Lasarte-Oria	1	10	709	166	543
Urnieta	1	4	100	0	100
Usurbil	1	7	353	158	195

**Estatistika orokorrak: Buruntzaldea 2009-2010**

**Kirol jarduera zehatzak herriz herri**

KIROLA	KOPURUA	ANDOAIN	LASARTE	URNIETA	USURBIL
Yoga	171	130	--	28	13
Aerobika	414	173	155	25	61
Aquaerobika	6	--	6	--	--
Aquagyma	140	83	57	--	--
Balance	80	80	--	--	--
Banakoako entrenamenduak	5	--	5	--	--
Egokitze fisikoa	39	39	--	--	--
Funkya	16	16	--	--	--
Igeriketa	279	227	8	--	44
Kirol egokituak	3	--	3	--	--
Kirol-ludoteka	163	--	163	--	--
Mantentzeko gimnastika	155	58	65	8	24
Pilates	145	--	116	--	29
Spinninga	387	188	131	--	68
Tonifikazioa	93	54	--	39	--
Ur-ludoteka	114	--	--	--	114
Yoga	92	92	--	--	--



**Buruntzaldeako Udal Kiroldegia**



**Andoain**

943 300 147 allurralde@andoain.org



**Lasarte**

943 376 182 kirolak@lasarte-oria.org



**Urnieta**

943 008 328 kirol@urnieta.org



**Usurbil**

943 372 498 kirolpat@usurbil.net

**www.buruntzaldea.org**



**KIROLAK BURUNTZALDEA.ORG**  
Kirol jardueren inguruko informazioa ordenagailuaren pantailan jaso nahi izanez gero, Buruntzaldea mailako webgunera proposa da horretarako. Bertan lau kiroldegien harremanetarako kon-

rakta, kirol eskaintza edota ordutegiak eskaintzen dira. Abonua eskatu edota zailtzaak argitzeko aukera ere badago. Bestalde, herriz herri egin daitezkeen ibilaldien xehetasunak ere eskaintzen dira.

**...eta udan igerilekura**

**URNIETAKO KIROLDEGIA ZABALIK**  
Ekainaren 12an Urnietako igerileku irekia zabalduko da. Eguraldi orarokin igerilekua aukera polita da.



osasunaren alde  
**(MORATORIA)**

ERRAUSTEGIRIK EZ!



**MANIFESTAZIOA DONOSTIAN**  
ekainak 20, 12:00etan bulebarretik

ERRAUSKETAREN  
AURKAKO  
KOORDINAKUNDEA



Usurbilgo  
Ituna

ALTERNATIBA. ARALAR. BERDEAK. EZKER ABERTZALEA. EZKER BATUA.  
CCOO. ELA. EHNE. EILAS. ESK. HIRU. LAB.  
ERRAUSKETAREN AURKAKO KOORDINAKUNDEA. EGUZKI. GREENPEACE. EKOLOGISTAK MARTXAN.  
USURBILGO UDALA

## Datorren astean, Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen batzarra

**U**dako oporrak direla eta, Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak bere asteroko entseguetuei amaiera emango die. Ostegun honetan, ekainak 10, ez da entsegurik izango. Baina ekainaren 17an osteguna, arratsaldeko 19:15ean bilera bat egingo da entsegetako leku berean.

Hauek dira ekainaren 17ko bileran landuko diren gaiak:

- 2009-2010 ikasturteko memoria eta iritziak.
- Orain arteko gastuen azalpena.
- Irailetik aurrera markatu behar diren lan-ildoak. Antolaketa.

### Ekainak 18, saioa Sutegin

Baina uda aurreko ekimen saioak agurtzeko, Kantu Taldeak "Gure Herriko Musika" emanaldia antolatu du Sutegin, ekainaren 18an ostirala, 20:00etan, Ibaia



KANTU TALDEAREN BILERA ENTSEGU LOKALEAN BERTAN IZANGO DA.

taldearen eskutik. Sarrera doan. Ibaia dira Laura Latienda (ahotsa gitarra), Aitor Furundarena (akordeoia), Ritxi Salaberria (kontrabaxua) eta Igor Telletxea (perkusioa gitarra).

Kantu Taldearen esanetan, kontzertuak guztiz parte-hartzaileak dira, harreman goxo bat lortzen da taldearen eta entzuleen artean. Publikoak kantu liburuxka bat izango du bere esku, taldearekin batera abestu dezan.

## Mikel Larrañaga aske utzi ondoren, lehen harrera Usurbilen egin zioten

**J**oan den ekainaren 1ean aske utzi zuten Mikel Larrañaga, bost urtez frantziar estatuan espetxeratua egon ostean. Zarautzartara sortzez, Larrañagak Usurbilen senitartekoak ditu eta bizilekura ailegatu aurretik, Usurbilen egin zioten lehen harrera lagun eta senideek.

Bestalde, joan den larunbaterako Herrera eta Alcazarreko espetxeetarako martxekin amaitu da Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak egunotan antolatu duen Presoen Eskubideen Aldeko Astea.

Burutu diren ekitaldien artean, "Burdinen arteko herria" izeneko libu-



JOXE DOMINGO AIZPURIAREN ESKUTIK JASO ZUEN LORE-SORTA.

ruaren aurkezpena. Preso egon diren herritar eta euren senideen testigantzetan oinarritutako ikus-entzunezkoa ere proiektatu zen kultur etxeko auditorioan.

## Belmonte Auzo Elkartearen batzarra

**K**alezarren, Belmonte Auzo Elkarteak urteko batzarra ospatuko du ekainaren 10ean osteguna arratsaldeko 18:00etan Harane zelai ondoko lekuan. Urteko plangintza eta egitasmoak izango dira hizpide.

## Santixabeletako

### Jai Batzordearen bilera

**S**antixabelak prestatzeko, Jai Batzordea datorren astean bilduko da berriz ere, ekainaren 10ean osteguna arratsaldeko 19:00etan udalbatza aretoan. Bertan, egitarau lehiaketara aurkeztutako lanen artean irabazlea nor den erabaki behar dute batzorde kideek.

## Atez ateko zalantzak argitzen

### Aerosolak nora bota behar dira?

*Printzipioz ontzi arinetara bota behar dira, baina produktu toxikoak baldin baditu bamean, SanMarkoko kamioiak jasoko ditu hilaren lehen eta azken asteazkenetan.*

Bidali zure galdera helbide honetara:  
atezate@usurbil.net  
Galde-erantzun guztiak webgunean:  
www.usurbil.net/atezate



Usurbilgo Udala



Usurbil osasura atez ate

Papera jartzea eta Pinturak orokorrean

**FERNANDO PINTURAK**

943 366 019  
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

**Otar-Goxo**  
Elkargutak

Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

**izagirre**

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirreletrizitate@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

# Ostiral honetan frontoian, Kukubel artzain neska gaztearen abenturak

**K**ukubel artzain neska gaztearen istorio berriak ekarriko ditu ostiral honetan Kukubiltxo antzerki taldeak Usurbilgo frontoira, arratsaldeko 17:30ean. Oraingoan, "Kukubel 2.0" umeentzako antzezlan da eskainiko dutena.

Kukubel 2.0 lana, Resurreccion Maria Azkuek bildutako ipuinetan oinarrituta dagoela azaldu zuen bere garaian Josu Camara Kukubiltxoko zuzendari eta Kukubelen egileak. "Azkueren ipuinetako bat Kukubel pertsonaiarena zen, eta guk hori antzeztea erabaki genuen. Dena dela, beste ipuin batzuetako jatorrizko pertsonaiak sartu ditugu lan berrian, horien artean, lamina, sorgina, lapurak, apaiz ehiztaria..."

## Egunero, mendira

Lan honen mamiari dagokionez, komeriaz beteta dator. "Kukubel artzain gaztea denez, mendira joaten da egunero. Bertan, txirula jo eta jo aritzen da, zelaietan entzuten dituen soinuen errepikapenak egiten", hala dio Kukubiltxoko zuzendariak.

## Musikaren garrantzia

Kukubiltxoren lan guztietan, musikak leku berezia izaten du, baita Kukubel 2.0 ikuskizunean ere. "Lehenengo abesti berberak erabiltzen ditugu lan honetan. Doinuak berrituta daude, baina Oskorriren partaidez berdin jarraitzen du. Gainera, Kukubeli musikak duen magiak indarra ematen dio".



"KUKUBEL 2.0" ARRATSALDEKO 17:30EAN HASIKO DA, FRONTOIAN.

## Lanbide Prestakuntza Programen erakusketa

**H**asierako Lanbide Prestakuntza Programak Usurbilgo herriari ezagutaraztea da erakusketa honen helburua.

Argazkien bitartez, urtean zehar egiten dituzten ekintzak azalduko dituzte. Sukaldaritza eta ile-apainketako proiektu errealak Sutegin praktikan jarriko dituzte Lanbide Prestakuntza Programetako ikasleek. Horrela, lanbidea bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da.

## Erakusketa egunak

Ekainak 16, 17 eta 18, goizeko 10:00etatik 13:00era.

## Ikastolaren Eguna ospatu zen igandean

**E**kaineko lehen igandean ospatu ziren Ikastolaren Eguna. Hainbat jolas eta ekitaldi iragarrita zeuden goiz partean. Ondoren, guraso, ikasle eta irakasle askok bat egin zuten frontoian egin zen herri bazkarian.



BAZKARIAREN ONDOREN JOLASEAN IBILI ZIREN DEMA PLAZAN.

**LAUKOTE**  
OKINDEGIA  
KAFETEGIA  
Puntapax kalea, 16 behea  
(Artzabal) 943 36 09 80

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**ALIPROX**  
Kale Nagusia 10  
943 361 182  
USURBIL

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. 943 362 725

## Bidelan-Kirolgiren babesa du Amador Granadosek

**K**risia tarteko, lasterketa bakar batean jokatuko da aurten Munduko Kopa, asteburu honetan Segovian. Han izango da Amador Granados txirrindulari usurbildarra. Hala ere, Kopa baino, urte amaieran ospatuko den Munduko Txapelketa da Amadorren helburu nagusia. Emaizta horren arabera egingo baita selekzioarako hautaketa. Aurten, Bidelan-Kirolgi taldearen babesa jaso du baina Zuzenak taldeko kide izaten jarraitzen du.

Bestetik, txirrindularitza egokituari hainbat egokitzapen izan dira eta mailaz aldatu dute Amador Granados. Baina faboritoen artean jarraituko du.

2012 urtean Londonen egingo diren Joko Olinpikoetan erretiratu nahi luke.



ASTEBURU HONETAN SEGOVIAN JOKATUKO DEN MUNDUKO KOPAN ARITUKO DA.

## Datorren astean, eskubaloit taldearen eguna

**E**skubaloit taldekoak denboraldiari amaiera emateko festatxo bat antolatzen ari dira. Ekainaren 19rako egin den deialdia zabala da: aurten jokatzeko ibili diren jokalariek, beste urteetan ibilitakoak, guraso, entrenatzaile eta klubeko ordezkari guztiak elkartu nahi dituzte, eta denen artean egun eder bat igaro.

Festa kantxa barruan eta kantxa kanpoan egin nahi dute. 16:00etan hasiko da lehenengo partida eta azkena 18:30ean.

### Afaria Saizarren

Usurbilgo eskubaloit taldekoek iragarri dutenez, "nahikoa izerdi bota ondoren, denak Saizar sagardotegian afaltzera



IAZ BEZALA, ARRATSALDEZ HAINBAT PARTIDA JOKATUKO DIRA ETA GAUEZ AFARIA EGINGO DUTE SAIZARREN.

joango gara indarrak berreskuratzeko. Afaldu ondoren jokalaria onenen sari banaketa izango da". Afarirako menua sagardotegikoa izango da (kafea barne).

Kadete eta jubenil jokalariek 19 euro eta gainontzakoak 26 euro.

### Usurbilgo Pilota Txapelketa

**EKAINAK 12 LARUNBATA**  
USURBILEN, GOIZEKO 11:00ETAN  
*Azken-laurdenak*

#### Jubenilak

Taberna-Beola - Landa-Labaka  
(Oiartzun) (Bidegoien)

#### Nagusiak

Lizaso-Erreka - Senperena-Biain  
(Billabona) (Bidegoien)

### EKAINAK 13 IGANDEA

USURBILEN, GOIZEKO 11:00ETAN  
*Azken zortzirenak*

#### Jubenilak

Ornoz-Lasa - Zinkunegi-Gesalaga  
(Baztan) (Usurbil)

#### Nagusiak

Apezetxea-Galarraga - Sarraoa-Perez  
(Bidegoien) (Gasteiz)

**TXAPELDUN**  
**TABERNA**  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurrea 2, 943 11 82 53

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Okindegia - Gozolegia  
**LABE-GOXO**

**LATAILLADE**  
**ITURGINTZA**  
GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK  
Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021





## Agenda !

**Ekainak 10 osteguna**  
"Home" pelikula Sutegin,  
arratsaldeko 19:00etan hasita.

**Ekainak 11 ostirala**  
Kukubel, 17:30ean frontoian.

**Ekainak 12 larunbata**  
11:30ean txistulari-trikitularien kalejira.  
22:00etan Zumarte Musika Eskolaren  
25. urteurrenaren kontzertua kiroldegian.

**Ekainak 15/17**  
Zumarte Musika Eskolaren urte  
amaierako kontzertuak Sutegin.

### Goardiako farmaziak

**Ekainak 10, osteguna**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 11, ostirala**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Ekainak 12, larunbata**  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Ekainak 13, igandea**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Ekainak 14, astelehena**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Ekainak 15, asteartea**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Ekainak 16, asteazkena**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Ekainak 17, osteguna**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Ekainak 18, ostirala**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 19, larunbata**  
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Ekainak 20, igandea**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
*Chucla farmazia (22:00-09:00),  
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*  
*\*Usurbilen, soilik eguerdira arte*

## Ekozinemaldia Sutegin

**Z**inema baliatuta, Zor Ekologikoa  
deritzon kontzeptuan sakontzea  
da, Usurbiltzen eta Ekologistak  
Martxan taldeek asteburu honetarako  
antolatatu duten IV. Ekozinemaldiaren  
helburu nagusia.

Ostiraleko saioan, "Semillas para  
seguir viviendo" izeneko dokumentalaz  
hitz egiteko Baltazar Guaca gonbidatu  
dute antolatzaileek. Ingurumen arra-  
zoiengatik errefuxiatu kolonbiarra da  
bera eta Sutegin izango da.

### IV. Ekozinemaldia

**Ekainak 9, asteazkena**

19:00 "Zor ekologikoa".

19:30 "Tekoha".

20:00 "Soberanía violada".

20:30 "Quiero ser tortilla".

Proiektzio denak Sutegin.



"SEMILLAS PARA SEGUIR VIVIENDO"  
DOKUMENTALA OSTIRALEAN EMANGO DUTE.

**Ekainak 10, osteguna**  
19:00 "Home", Sutegin.

**Ekainak 11, ostirala**  
19:00 "Eslabones del camarón".  
20:00 "Hasta las huevas".  
20:10 "Semillas para seguir viviendo"  
dokumentala (23 minutu). Hizlaria:  
Baltazar Guaca.

### Usurbilgo Pala Txapelketa

#### EKAINAK 13 IGANDEA

#### Usurbilen, 17:30etik aurrera

Leko - Haritz Harreguy  
Iban Arruti - Josu Ostolaza

Jon Larraña - Juanjo Lertxundi  
Josu Arruti - Jokin Zubiaur

Xabier Errasti - Manuel Galarraga  
Jon Arruti - Xabier Murua

Unai Loidi - Eneko Arregi  
Oidui Usabiaga - Mikel Aramburu

**4. jardunaldiko emaitzak (Ekainak 6)**  
Igor Alkorta - Josu Errekondo 17  
Mikel Ibarreta - Jon Olaizola 25

Eneko Harreguy - Iban Maritxalar 25  
Enrike Huizi - Unai Lataillade 24

Xabier Errasti - Manuel Galarraga 25  
Oidui Usabiaga - Mikel Aranburu 15

### Zumarteko ikasturte amaierako kontzertuak

**Ekainak 15, asteartea**  
18:30 **Sutegin:** Zumarte-Txiki  
eta Zumarte Abesbatzak, Urrezko  
Muskerrak, Biolin-Flauta, Triki-  
Pandero Taldeen zuzeneko kon-  
zertuak.

**Ekainak 16, asteazkena**  
18:30 **Sutegin:** Saxo, Gitarra,  
Piano, Txistu-Piano, Folk eta  
Helduen Talde instrumentalen  
kontzertuak.

**Ekainak 17, osteguna**  
18:00 **Udarregi ikastolan:**  
Musika Txokoko ikasleen saioa.

**txirriStra**  
KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak

**TABERNA**

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Obaba kalea 29 · ASTEASU  
943 69 68 52 · 620 800 186

## ETXEBIZITZA

- Bikote batek pisu bat alokairuan hartuko luke Usurbilen. Tf: 943 573 857 edo 603 131 645.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukalde-a. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Gizonezko langile edo jubilatu batentzat gela bat alokatzen da Usurbilgo kaxkoan prezio eta baldintza onetan. 687348223 edo 943364310.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Etxe bat alokatzen da Santuenean. 943 366 039.
- Usurbilgo Kaxkoan berriutako eta amueblatutako etxe bat alokatzen da. 3 logela, sukaldea, komuna, trasteroa eta bi terraza ditu. Eguzkitsua. 616064059
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m<sup>2</sup>. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska eskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gautean).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berrituta. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat dauka eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokalde-  
ra ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean.

671800275.

-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berri berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Txaramunto auzoan garaje itxi bat alokatzen da 80 eurotan, Interesatuak deitu: 667715075.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajejan egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotoako altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra dauka salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

## Lan-eskaintzak

- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsaldez, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketako lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Ifaiki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketako lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakume interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska eskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii konsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatuan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritza mahinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzatan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat dauka salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriei eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Zorionak Zuhaitz!**  
Ekainaren 11n 6 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu handi bat Nahia eta etxeko guztien partez.



**Zorionak Ivan!** Ekainaren 8an 12 urte egin dituzu eta lagunekin etxetik kanpo gainera. Zorionak eta muxu handi bat gurasoen partez. Ondo pasa!

## HILDAKOAK

**J. Agustin Labaka Iburguren** ekainaren 6an hil zen, 84 urterekin, Zubietan



**Zorionak Asier!** Ekainaren 9an 5 urte bete dituzu. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoen partez.



Ekainean erne ziren bi lore izateko gure bizitzan poza eta kolore **Zorionak Aimar eta Paule** gurasoen partetik!



**Itziar Alvarez Berradre** ekainaren 6an hil zen, 44 urterekin

Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasoak. Zorion-agurrak, hildakoak, oharrak... NOAUA!ra ekartzeko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. E-postaz: [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

**Tomas Calparsoro Elizondo** Ekainaren 1ean hil zen, 79 urterekin



#Gipuzkoa



# Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

## Enpresei laguntzea

Gipuzkoan badugu Plana:

Estualditik ateratzeko, berregituratzeko  
eta proiektu lehiakorrek sustatzeko  
neurriak bideratzea.

## OLARRONDON OSPAKIZUNAK

EZKONTZAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, FESTAK,  
DESPEDIDAK...

ESKATU AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE!!!  
PREZIO BEREZIAK

## OLARRONDOKO GAUAK

Ostiral eta larunbatetan JAI GIROA,  
Dj Izania, gaueko 12tik aurrera.

## OLARRONDOKO MENUAK

· Eguneroko MENUA 16€  
(OSTIRAL GAUA BARNE)

· ASTE BUKAERAKOA 30€

2 menuetan edaria, ogia eta kafea barne

## OLARRONDOKO KARTA

Aukera ederra!  
Arrain, haragi eta itsaskietan  
berezitasuna.



**Olarrondo Jatetxea**  
5 zenbakia. USURBIL  
erreserbak: ☎ 943 360 376  
[www.olarrondo.es](http://www.olarrondo.es)

[olarrondojatetxea@gmail.com](mailto:olarrondojatetxea@gmail.com)